

**A.13.1. AZITAIN I****A.13.1. AZITAIN I**Azalera: 218.125 m²**I. Ordenazio-irizpideak eta Helburuak**

Eremu honek, funtsean, Azitaingo Industrialdearen esparrua eta Ekialdeko magalean burututako hedapenak, "Erisono", hartzen ditu bere baitan.

Proiektu honetan area honi buruz egiten diren proposamena, eraikitako eraikin eta urbanizazioak finkatzea da, eta planteatzen den ekintza bakarra industrialdea ekialderantz hedatzea da, "Erisono" eremuaren jarraian, Erisono Esparruko Jarduketara Integratuaren bidez.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren arabera.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordeztarokan, O-AL-AO-1 "Lerokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak", XII. planoan zehazturiko lerokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera esanguratsuen Erabilera produktiboa da: Hirigintza Arauen agiriko 8.3.09. Artikulua.- Erabilera produktiboa (8. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.

Planeamendu Gehituko Eremu bat sartzen da eremu honetan, eta horri dagokion ordenazio xehatua dagokion garapen planeamendura egokitu beharko da:

API 07 ERISONO I PLAN PARTZIALA

Azalera: 42.214 m²

Planeamendua:

* Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2004ko otsailaren 10ean egindako bilkuran behin betiko onespenu eman zion Erisono 6. sektoreari dagokion Industriadarako Lurzoru Urbanizagariaren Plan Partzialari, 2004ko apirilaren 6ko 65. zenbakiko GAOan argitaratu zena.